

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuko kide berriak beren karguez jabetu dira

*Barcina Lehendakaria buru izan den ekitaldi batean, Goicoechea eta Sánchez de Muniáin lehendakariordeek eta Morrás, Esparza, Pejenaute eta Zarraluqui kontseilariak beren karguei zin egin edo promes egin die*

Sábado, 23 de junio de 2012

Yolanda Barcina Lehendakariak atzo izendatu zituen Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta kontseilari berriak beren karguez jabetu dira gaur goizean Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egindako ekitaldi ospetsuan. Ekitaldia Foru Gobernuaren osatzen duten gainerako kideen aurrean egin da, Nafarroako agintari nagusiak, haien artean: Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán, bai eta kontseilari berriek gonbidatutako adiskide eta senitartekoak ere.



Nafarroako Gobernu berriaren argazkia.

Bertan izan da ere orain arte bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari izandako Álvaro Miranda. Mirandari, hain zuzen Lehendakariak "aitorpen oso berezia" egin dio "bere leialtasunagatik eta Nafarroaren alde azaldutako eskuzabaltasunagatik eta egindako lan eskergagatik". Lehendakariak ere "publikoki eta zintzo" kargua utzitako gainerako kontseilarien lana eskertu du.

Yolanda Barcinak bere agerraldian Gobernu berriaren norabideari buruz hitz egin du. "Akordioa eta adostasuna bilatzea izan behar dira Gobernu hau gidatuko duten iparra Nafarroako arazoak konpontzeko eta bereziki lanik gabe dauden ia 50.000 herritarrari soluzioak emateko", aipatu du; jarraian, honako hau erantsi du: "Nafarroa abian da. Nafarroak funtzionatzen du, eta Gobernu honek ezin du minutu bat ere galdu egungo une zail hauetatik sendo ateratzeko borrokan ari den komunitate baten buru jartzeko. Gobernu honek egonkortasun eta laguntza parlamentarioan galtzen duena, kohesioan eta erabakitasean irabazten du aurrean dugun lanari aurre egiteko".

## Ekitaldiaren garapena

Ekitaldia goizeko  
11:00etan hasi da Nafarroako  
Ereserkiarekin. Jarraian,  
Lehendakariaren foru-

dekretuak irakurri dira, atzo sinatu eta gaur Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu direnak, eta irakurketa horien bidez izendatzen dira kontseilari berriak.

Nafarroako Lehendakariak iragarritako [Gobernuaren birmoldaketa](#)rekin bat etorritz, beren karguari zin egin diote: [Lourdes Goicoechea Zubelzu](#)-k (Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua), [Javier Morrás Iturmendi](#)-k (Lehendakaritza, Justizia eta Barnea) [José Javier Esparza Abaurrea](#)-k (Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Adminisrazioa) [Jesús Pejenaute Grávalos](#) (Gizarte Politika) eta [Luis Zarraluqui Ortigosa](#)-k (Sustapena). Goicoechea kontseilariak formula euskaraz ere erabili du.

Beren karguei zin egin ondoren, Barcina Lehendakariak kontseilari bakoitzari intsignia bana jarri die Nafarroako ezkutuarekin.

Ondoren, Gobernuko lehendakari berrien izendapenari ekin zaio. Lourdes Goicoechea kontseilariak karguari zin egin dio lehen lehendakariorde gisa (gaztelaniaz eta euskaraz), eta Juan Luis Sánchez de Muniáin kontseilariak bere karguari promes egin dio bigarren lehendakariorde gisa.

Ekitaldia Yolanda Barcina [Nafarroako Lehendakariaren diskurtso instituzionala](#)ren irakurketarekin amaitu da, eta Nafarroako Jauregiko lorategian Foru Gobernu berriari argazki bat aterata.

### Gobernu berria

Hiru kontseilari sozialista kanpoan geratu ondoren eta orain arteko lehendakariorde ekonomiko Álvaro Miranda ordeztu ondoren, Nafarroako Gobernu berria zortzi kontseilariz osatuta geratzen da, haietako bi, aldi berean, lehendakariorde dira. Aurrez aipatutako horiei [Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia](#) (Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak), [José Iribas Sánchez de Boada](#) (Hezkuntza) eta [Marta Vera Janín](#) (Osasuna) gehitu behar zaizkie.

Gaur argitaratutako Lehendakariaren foru-dekretuarekin bat etorritz, [Foru Administrazioako departamentuetako egitura](#) ondorengo lehentasun-ordenarekin antolatzen da:

- Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua
- Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak
- Lehendakaritza, Justizia eta Barnea
- Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Adminisrazioa
- Hezkuntza
- Osasuna
- Gizarte Politikak
- Sustapena

### Galería de fotos



Barcina Lehendakaria Gobernu berriari hitz egiten.





Lourdes Goicoechea lehen lehendakariordearen karguari eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari karguari zin egiten



Juan Luis Sánchez de Muniáin bigarren lehendakariorderaen karguari promes egiten.



Javier Morrás Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari karguari zin egiten.



José Javier Esparza Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako karguari zin egiten.



Jesús Pejenaute Gizarte Politiketako kontseilari karguari zin egiten.



Luis Zarraluqui Sustapeneko kontseilari karguari zin egiten.



Morrás kontseilaria, familiarekin.



Esparza kontseilaria, familiarekin.

Goicoechea lehendakariordea, Vera kontseilariarekin eta haren familiarekin.



Pejenaute kontseilaria, familiarekin.



Zarraluqui kontseilaria, familiarekin.